

## Koordinazioa

Xabier Murelaga

Estratigrafia eta Paleontologia Saila

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

UPV/EHU

## Batzorde antolatzailea

Arturo Apraiz

Geodinamika Saila

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

UPV/EHU

Luis Angel Ortega

Mineralogia eta Petrologia Saila

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

UPV/EHU

Ana Pascual

Estratigrafia eta Paleontologia Saila

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

UPV/EHU

Karmele Urtiaga

Mineralogia eta Petrologia Saila

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

UPV/EHU

Lola Fernández Alonso

Euskadiko AEPECT-eko ordezkaria

## Entitate laguntzaileak



Euskadiko Geologoen Elkargo Ofiziala  
Ilustre Colegio Oficial de Geólogos del País Vasco



**EVE** | Ente Vasco  
de la Energía



**ZTF-FCT**

Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
Facultad de Ciencia y Tecnología



eman ta zabal zazu



Universidad  
el País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Euskal Herriko Geologiako III Olinpiada 2011ko Urtarrilak 21



Argazkiak: Bilboko II argazki geologikoen lehiaketan hautatutako  
lehen lau argazkiak

## Helburuak

Lurraren gainean bizi garen arren, oraindik ere, gizateriaren gehiengo batentzat oso ezezaguna da. Geologiaren laguntzarekin gure Planeta



ezagutzen eta bertan gertatu eta gertatzen diren prozesuak ulertzen ikasten dugu. Geologiak eskaintzen diguna behar beharrezkoa dugu, baldin eta Lurra babestu eta mantendu nahi badugu. Geologiaren Olinpiada honekin Batxilergoko ikasleengan zientzia honen ezagupena garatu nahi dugu, bere aplikazioak gaur egun duten

eta etorkizunean izan dezakeen eraginaz ohar daitezzen.

## Parte-hartzaileak

Parte hartu ahal izango dute 2010/2011 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko eta inguruko erkidegoko Bigarren hezkuntzako edo batxilerrako ikastetxeetan, bigarren eta lehen batxilerran matrikulatutako ikasle guztiak.

## Izen-ematea

Parte hartu nahi duten ikastetxeek eskaera-orria bete behar dute: ikasleen eta irakasgaiko irakaslearen izenarekin, bai eta ikastetxeko zuzendariaren oniritziarekin ere. Eskaera-orria posta elektronikoz ([xabier.murelaga@ehu.es](mailto:xabier.murelaga@ehu.es)) edo posta arruntez bidaliko da:

Xabier Murelaga

Estratigrafia eta Paleontologia Saila  
Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
UPV/EHU

Sarriena auzoa z.g.

48940 Leioa (Bizkaia)



**Izen-emateko epea 2011ko urtarrilak 18an bukatuko da**

## Garapena

Proba teorikoan Batxilergoko lehen eta bigarren mailako edukietatik ateratako 50 test-moduko galderak izango dira. Proba praktikoa 12 laginekin osatuta egongo da eta arroka, mineral eta fosil ezberdinak identifikatu beharko dira.

Galderak erantzun bakuneko test-modukoak izango dira. Gai bakoitzeko aterako diren galderen kopurua ondorengo hau izango da:

- 1- Barne Geodinamika: Lurraren barne-egitura, plaka tektonika eta egitura tektonikoak (failak eta tolesak). 15 galdera.
- 2- Mineralogia: mineralak eta beraien identifikazioa. 5 galdera.
- 3- Petrologia: arroken zikloa, arroka motak eta beraien jatorria. 15 galdera.
- 4- Estratigrafia: denbora Geologian, geruzen gainjarpenaren printzipioa, diskordantziak. 5 galdera
- 5- Paleontologia: erregistro fosila eta bizitzaren eboluzioa. 5 galdera
- 6- Geomorfologia: gure inguruko paisaian ikus daitezken egitura geomorfologikoak. 5 galdera.

## Fase nazionala

Lehen lau irabazleak Euskal Herria ordezkatzeko dute martxoak 26an Madrilen egingo den Olinpiadako fase nazionalean. Lau irabazleak Italian ospatuko den olinpiada internazionalen hartuko dute parte. Informazio gehiago <http://www.aepect.org/olimpiadasgeologia/index2011.htm>

## Proben tokia eta data:

Tokia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea UPV/EHU. Leioako Kanpusa. Sarriena auzoa z.g. Leioa (Bizkaia).

Data: 2011ko urtarrilak 21. Atal teorikoa: goizeko 10etan. Atal praktikoa: goizeko 12etan.

## Sariak

Euskadiko Geologoen Elkargoak irabazten duten lau ikasleei Madrilen ospatuko den Olinpiadako fase nazionalean parte hartzeko bidaia, ostatu eta mantenu gastuak ordainduko dizkie. Geogarapenek lehen lau ikasle eta beraien joan daitezken beste bi pertsoneri Euskal Kostaldeko Geoparkeko flysch-a ikusteko itsasontziz bisita gidatua eskeintzen die.

